


Urriaren 20tik 23ra



Zinegin

FESTIBALA

EUSKAL ZINEMALDIA

Hazparne

EGITARAUA :

ALTSASU (GAU HURA)

**BOST TEILATU · BI ARNAS · ANE
AMIKUZEKO IKASTOLAK 50 URTE**

O GEMER · YOKO ETA LAGUNAK

FILM SORPRESA SATANIKOA

URAREN OLDEA ZINEKONTZERTUA

MASHUP TAILERRA · MÄIRÜ · AKTS

2022



Sar Hitzza

Zinegin festibalaren 11. edizioa urriaren 20tik 23ra iraganen da. Urriko bakantzen hasieran beraz, euskarazko hamaika film eta animazio ikusteko aukera. 2012an, Eihartzea Kultur Etxeak, Ttattola gaztetxeak eta Haritz Barne zinema-gelak Zinegin festibala elkarlanean sortu zuten, euskarazko filmen proiektatzeko eta Hazparnen euskal kulturak bizitzeko behar duen hatsgune bat proposatzeko asmoz.

Beti bezala, mota guztietako filmak hedatuko ditugu : fikzioak, dokumentalak, film esperimentalak... Aurten, kontzertuak ere proposatu nahi izan ditugu. Urriaren 21ean, ostiralez lehenik. Ezkia Ikastoarekin partaidetzan, Amikuzeko ikastolaren dokumentalaren proiektzioaren ondotik, txalaparta eta musika elektronikoa uztartzen dituen Mairü talde ziburutarrak trantzean sartuko gaitu eta ondotik Anize Amezttoi hazpandarraren sorkuntzak ezagutzeko aukera izanen dugu. Zer poza! Gaztetxearen kontzertu gela obretan baita, Haritz-Barne zinema ondoko frontoian karpa muntatua izanen da. Bestalde, igande gauean Peru Galbetek ura hartu zuten haurtzaroko diapositiba zaharrak berpiztu ditu, zine-kontzertu intimista baten proposatzeko. Ez huts egin ere larunbat gaueko filma : film satanikoa, San Paul profetak aurkeztua. Ez dautzugu gehiagorik erraiten, baina hotzikara zirrarak maite badituzu, xauri!


Zauzte euskal zinemas eta kontzertuetaz gozatzera !

Eskerrak

Milesker urte guzian Haritz Barne zinema-gela kudeatzen duen Zabalki elkarteari, festibalari harrera egiteagatik. Esker mila Ezkia Ikastolari, Ttattola gaztetxeari, EKE-ri, Pirinio-Atlantikoetako Departamenduari, Euskal Hirigune Elkargoari, Herriko Etxeari baita urtero laguntzen gaituzten Hazparne inguruetako enpresa pribatuei ere. Esker bereziak ere Euskal Zine Bilerari eta Kimuak erakundeari, ekartzen diguten ezinbesteko laguntza eta elkarlanarentzat.

Zineginoko pinpirinak

zinegin@gmail.com
<https://zinegin.eus>



Osteguna 10/20a



ANE

Zuzendaritza : David Pérez Sañudo

Hizkuntza : Euskara

20:00 - (99')

Prezioa : 3€

Gasteiz, 2009. Lide segurtasun-zaintzailea da; abiadura handiko trenaren obretan egiten du lan, karriketan protesta sozialak eragiten dituen proiektu batean, hain zuzen. Lan egin eta gaua bestan iragan ondoan etxera itzultzen denean, birentzat gosaria prestatzen du, baina bere alaba nerabea, Ane, ez da etxean. Ondoko egunean Ane ez da oraino agertu. Lide ez da inkiet, hain segur, aitzineko egunean izan eztabaida Gogorreareratik desagertu dela pentsatzen baitu. Aneren pusken artean miatzean, ohartzten da bere alaba ez duela zinez ezagutzen.

Ostirala 10/21a

19:00 etatik goiti taloak
Ezkie ikastolak eginik !

AMIKUZEKO IKASTOLAK 50 URTE

19:00 - (92')

Prezioa : 3€



Zuzendaritza - Réalisation : Arño Ayçaguer, Coline Urcun-Marko, Bittor Thicoipe, Martta Irigoien Arrabit, Etxe

Hizkuntza - Langue : Euskara

Azpituluekin : Sous-titré en français

Zuzendarien eta Jeanne Pochelu anderñoaren presentzian
- En présence des réalisateurs et de l'enseignante Jeanne Pochelu

1971-2021.

Berriki, Amikuzeko ikastolak 50 urte bete ditu. Karia horretara, ikasle ohi batzuek gaur egungo eta atzoko erakasle, langile eta buraso batzuk elkarrizketatu dituzte haien garaiko testuingurua, gogoetak, eztabaidak, lorpenak eta huts egiteak kontatzeko. 23 lekukotasun bildurik eta elgarri josirik, dokumental horrek Ipar Euskal Herriko bigarren ikastolaren historia ezagutzeko parada eskaintzen du. Baina Amikuzetik haratago, lekukotasun horiek ikastola guzien historiaz zerbait kontatzen dute: hastapeneko aldarrikapena eta herrian errotzea, bere hezkuntza sistemaren asmatzea eta egitura hauen saretzea, botere publikoen akuilatzea eta euskararen erabilpenaren eta geroaren inguruko kezka... Uste baino gaurkotasan eta unibertsaltasan gehiago baitu hizkuntzen aldeko borroak.

En 2021, l'ikastola d'Amikuze fêtait son 50ème anniversaire. A cette occasion, un groupe d'anciens élèves s'est lancé le défi de réaliser un documentaire retraçant un demi-siècle de batailles, de réflexions, de réussites, d'échecs et de petites choses qui font le quotidien de ce genre de projet où l'humain est central. Pour cela ils ont recueilli les témoignages d'anciens. nes parents, enseignantes, employées et élèves.

A travers l'histoire singulière de l'ikastola d'Amikuze, vous retrouverez une épopée universelle de parents engagés pour que leurs enfants suivent un enseignement en basque. Un documentaire qui intéressera les parents d'hier, d'aujourd'hui et de demain, mais plus largement celles et ceux qui sont encore convaincus que c'est dans le collectif que se réalisent les plus belles œuvres.



Kontzertuak
Zinemaren ondoan

▶ 22:00

▶ Prezioa : 5€

MÄIRÜ



© Nahia Garat



© Nahia Garat

Kondaira zahar-zahar bat irudika ezazu. Odisea bat, inimizio-bidaia itxurakoa, non hamar protagonistak izaki mitiko baten bila abiatzen baitira. Emeki-emeki, beren bidaiaren egiazko xedeaz ohartzen dira: bat egitea izaki bakar bat bilakatzeko. Xerkatzen zuten izaki hura: Mäirü. Ipuin moderno hori musikaren mintzaira unibertsalean kontatzen digute. Txalapartarekin iragan urrunean errotua da, baina zinez egungoa den trantzera ekarri dute sintetizadore eta tratamendu modernoak behialako oihartzunekin uztartzuz. Tribala, liluragarria eta harrigarria da, eta kontakizunak ez du nehor hotz uzten. Proposamen sailkaezina eta ausarta.

Imaginez un très ancien conte oublié, une odyssee en forme de voyage initiatique au cours de laquelle les dix protagonistes, en quête d'une entité mythique, vont peu à peu prendre conscience du but réel de leur périple : la fusion vers un être unique qui n'est autre que celui qu'ils cherchaient : Mäirü. Cette fable moderne nous est contée ici dans le langage universel qu'est la musique, enracinée dans un passé lointain avec l'emploi de la txalaparta et transposée dans une transe profondément actuelle, où synthétiseurs et traitements modernes se lient aux échos des anciens. A la fois tribal, envoûtant et surprenant, le récit ne laisse clairement pas indifférent. Inclassable et osé.

AKTS



Techno melodikoaz inspiraturik, erritmo handiko bakarkako kontzertu honek hemengo soinu paisaiak (Soinumapa), soinu elektronikoak eta zuzenean jo tresnak nahasten ditu. Polirritmiarekin jostatuz eta inprobisazioak eta akats teknikoak baliatuz, burua eta zangoak askatzen dituen musika momentu bat proposatzen du.

Inspiré par la techno mélodique, ce concert solo au rythme soutenu mélange des paysages sonores d'ici (Soinumapa), des sons électroniques ainsi que différents instruments joués sur scène. En jouant sur la polyrythmie et en s'amusant des erreurs techniques et d'improvisation, aKts propose un moment musical qui libère l'esprit ainsi que l'envie de taper du pied.

Larunbata 10/22a



MASH UP TAILERRA Lukas Hiriartekin

➤ 09:00 - 12:00
➤ Prezioa : Urririk

Film baten muntaketa nola egiten den ulertu nahi duzu? Mash-up mahai magikoaren bidez, Lukas Hiriartek erakutsiko digu film labor baten muntaketa nola egin manera ludikoan eta kolektiboan: irudien hautaketa, elkarrizketen edo off bozaren idazketa eta grabaketa, soinuaren eta musikaren gehitzea... Zato zinemara, film labor baten sortzera!

Izena emateko, idatzi : zinegin@gmail.com

6 urtetik goiti
Lekuak
mugatuak



BI ARNAS

➤ 16:00 - (58')
➤ Prezioa : 3€

- 🕒 Zuzendaritza - Réalisation : Jon Mikel Fernandez Elorz
- 📍 Hizkuntzak : Euskara, gaztelera
- 🌐 Euskarazko azpitoluekin
- 🎬 Zuzendariaren presentzian

Torturari buruzko lekukotasuna da Bi arnas dokumentala, bidegabekeria baten isla eta sekula eskaini ez den elkarrizketa. Bi dira protagonistak: ama, Maria Nieves Diaz, eta alaba torturatua, Iratxe Sorzabal Diaz.



BOST TEILATU

➤ 18:00 - (80')
➤ Prezioa : 3€

- 🕒 Zuzendaritza : Amancay Gaztañaga, Erika Olaizola, Josu Martinez, Leire Egaña, Eñaut Castagnet, Raúl Barreras
- 📍 Hizkuntzak : Euskara, frantsesa eta gaztelera
- 🌐 Euskarazko azpitoluekin
- 🎬 Zuzendarien presentzian

Bost teilaturen azpian gertatu bost istorio labor, bost film labor. Bakoitzak bere etxean “KraK” egin duten Ane eta Mirenen dolua; Ekaitz gazteak eta Inaxiok baserrian bizi duten katarsiak eman “Arnasa”; Michellek sorterrira itzultzean aurkituko dituen “Hitzak” eta iraganaren inguruko galderak; pakete bat eraman behar duen etxera joateko “Erlojupekoa” egiten duen mezularia, eta, azkenik, tentsioz eta arriskuz betea den “Muga” inguruan babestuko duen teillatu baten bila dabilen Kamaru gazte afrikarra.




SORPRESA !!! FILM SATANIKOA

Egitarauan : infernua, sua eta munstroak !
San Paul profetak aurkeztutik...

▶ 21:00
▶ Prezioa : 3€

Igandea 10/23a



YOKO ETA LAGUNAK

4-7
urte

▶ 10:30 - (80')
▶ Prezioa : 3€

- 🎬 Zuzendaritza : Juanjo Elordi, Rishat Gilmetdinov
- 🗣️ Hizkuntza : Euskara
- 🌐 Zuzendariaren presentzian

Oto, Mai eta Vik parkean elkartzen dira jostatzeko. Yoko heldu da haiengana, oihaneko jeinu umea. Yokok eguneroko jokoak abentura ikusgarri bihurtzen ditu. Haurrak enbor baten gainean piratetan jostatzea aski da Yokori esker, bat-batean, egiazko itsasontzi pirata batean itsasoa zeharkatzen hasteko.



O GEMER

▶ 15:00 - (63')
▶ Prezioa : 3€

- 🎬 Zuzendaritza : Xabier Erkizia Martikorena
- 🗣️ Hizkuntza - Langue : elkarrizketarik gabe - sans paroles
- 🌐 Zuzendariaren presentzian - En présence du réalisateur

Gaur egun (Europar segurik) desagertua den idi-orgaren soinu zibilizazioaren soinu-banda izan da azken 5.000 urteetan. Nolazpait, gure entzumen-kultura garaikidea ulertzen laguntzen gaituzte. Hamar urteko ikerketa luze baten ondotik, oraindik bizirik dagoen soinu hau Hego Amerikan berriz aurkitu dugu. Beraz, filma, hitzik gabe, azalpenik gabe, soinu berezi honen giblean den historia guziaz erakusteko entsegu da.

Le son produit par ce que l'on appelle les chars à bœufs basques a disparu en Europe. Cependant, au cours des 5 000 dernières années, il a été un son commun dans la civilisation, ce qui, d'une certaine manière, aide à comprendre notre culture auditive actuelle. Après une recherche de dix ans, nous avons trouvé ce son en Amérique du Sud. Ce film est une tentative de montrer ce qui se cache derrière ce phénomène très spécial et particulier.



ALTSASU (GAU HURA)

▶ 17:00 - (80')

▶ Prezioa : 3€

🎬 Zuzendaritza : Amets Arzallus Antia, Marc Parramon Bori

🗨️ Hizkuntzak : Euskara eta gaztelera

🌐 Euskarazko azpitituluekin

👤 Altsasuko familiarren presentzian

ETAk borroka armatua behin betiko utzi eta bost urte geroago, Nafarroako herri batean, Altsasun, besta gau bateko ostatuko kalapita bat ondorio kliniko honekin bukatu zen: orkatila bat hautsia. Baina orkatila hori Guardia Zibil batena zen. Ondorioz, terrorismoz akusaturik, zortzi gazte presondegian sartu zituzten urte frankotarako. Euskal Herria bake bidean sartua zenean, iraganeko mamuak berpiztu ziren Altsasun.

19:00etatik goiti



Ez ahantz zure burgerra erreserbatzea!
07 61 73 53 50

URAREN OLDEA Peru Galbeteren zinekontzertua

▶ 21:00 - (45')

▶ Prezioa : 3€



Uraren Oldea zuzeneko ikusgarri musikal eta bisual hunkigarria da, familiako diapositiba zahar batzuk oinarri dituen. Diapositibek uholde bat jasan zuten 1997an eta urak eraldatu zituen, denborak oroitzapenekin egiten duen bezala. Zine-kontzertu hau memoriaz, oroitzapenez, denboraz eta garenaz (edo izateari uzten diogunaz) ari da. Soinua eta musika ere, ahots-efektu eta loopen bidez, denboran joan-etorrika dabil, azkenik ohartzeko oraina besterik ez dela.

Ordutegiak

Filmak	Prezioa	Iraul.	10/20	10/21	10/22	10/23
ANE	3 €	99'	20:00			
AMIKUZEKO IKASTOLAK 50 URTE	3 €	92'		19:00		
BI ARNAS	3 €	58'			16:00	
BOST TEILATU	3 €	80'			18:00	
FILM SATANIKOA	3 €	98'			21:00	
YOKO ETA LAGUNAK	3 €	80'				10:30
O GEMER	3 €	63'				15:00
ALTSASU (GAU HURA)	3 €	80'				17:00

Ekimen bereziak

KONTZERTUAK Mairü eta aKts	5 €			22:00		
MASH UP tailerra Lukas Hiriatekin	Urririk				09:00 12:00	
URAREN OLDEA Peru Galbeteren zinekontzertua	3 €	45'				21:00

Lekua

HARITZ BARNE ZINEMA-GELA - 7 Jats karrika - 64 240 HAZPARNE